

MEXIKARRA 2015 ekitaldiaren kronika

DAD KUTXA GOLF XX. MEXIKARRA 2015 - PARTE-HARTZE ETA JOKO ALDETIK ARRAKASTATSUA!

Urriaren 11n, igandean, gure golf-txapelketarik esanguratsuena jokatu zen, DAD kutxa Golf XX. Mexikarra.

Aurten txapelketa eta ondorengo lagunarteko bazkaria Jaizkibelgo (Hondarribia) golf-zelai zoragarrian egin ditugu, Donostiako Golf Errege Klubean; parte-hartzaileen kopuru aldetik markak hautsi dira, aurreko urteetako kopuru guztiak gainditu baitira.

Hogeigarren ekitaldi honetan 11 talde izan ditugu, launa kidekoak. Kutxabankeko 15 lankide izan dira, eta 29 senitarteko eta lagun, zaletasun berbera dutenak eta egun atsegin bat igarotzeko gogo berbera ere bai.

Egun osoan eguraldia lagun izan genuen, eta ez ziren beharrezkoak izan ez ur-jantziak ez euritakoak, nahiz eta iragarria ziguten astebururako <<Joaquin>> urakanaren hondarrak iritsiko zitzaizkigula. Zelaia egoera ezin hobean zegoen jokorako eta Hondarribiko Klubak erraztasun guztiak eman zizkigun partidak jokatzeko, bazkaria egiteko, baita sariak banatzeko ere. Azpimarratzekoa ibilbidearen erdi aldera kronika hau egiten duenaren emazteak prestatu zigun "mokadua" (aurten ez badut aipatzen, datorrenean ez izateko arriskua dugu).



Jokoari buruz, esan behar da hiru taldek erakustaldi handia egin zutela ibilbide osoan zehar, honela amaituz: 62 kolpe (9 pare azpitik), 66 kolpe (5 pare azpitik) eta 67 kolpe (4 pare azpitik). Hiru talde hauek Ryder Cup-era joan ahal izango lirateke zuzenean. A zer erakustaldia egin ziguten! Gainerako taldeak zelaiko parearen (72 kolperen) inguruan ibili ziren, eta horrek erakusten du beraien artean zegoen oreka.

Hona hemen txapelketako ohorezko sailkapena:

- Talde txapelduna 62 kolpe, 9 "Birdie"(txoritxo) eta 11 parerekin:



Jon Beldarrain (kapitaina),

Cristobal Garcia (Bita),
María Luisa Amunarriz eta
Carlos Yeregui

- Talde txapeldunordea 66 kolpe, 5 "Birdie"(txoritxo) eta 13 parerekin:



Mikel Alzaga (kapitaina),
Juncal Lezertua,
Javier Adrian eta
Mari Carmen Sexmilo.

- Driver luzeena:



Gizonezkoak: Adrian Arriaga
Emakumezkoak: Isabel Arrieta

- Zulotik hurbileneko bola:
Adrian Arriaga (Goiko argazkia)

Partida amaitu ondoren eta jatetxeko terrazan pintxo eta freskagarriak hartu ondoren, Zimizarga menua dastatu genuen, oso ongi prestatua eta bazkaltiar guztion gogokoa.

Kafearen ondoren, garaikur eta sari banaketa jokalariei guztientzat, 2 sari berezirekin parte-hartzaile guztien gozagarri, akordeoi musikaz eta euskal erreperitorio klasikoaren alaituta; horrela dantzara animatu zen jendea, eta ohiko 'kalejira' egin zen aurtengoari agur esateko.



Amaitzeko, eskerrak ematea dagokigu: Klubari bere prestutasun handiagatik, eta Joseani eta Maria Jesusi ezkutuan egiten duten lan handiagatik, horrela lortu baita aurten ere oso arrakastatsua izatea parte-hartzearen aldetik.

Mila esker guztioi zuen parte-hartzeagatik eta datorren urtera arte !!!

Antolatzaileak